URMUGAREN

URTANTA

NESTOR BASTERRETXEA GOGOAN

2024ko uztaila

URMUGAREN

URTANTA

NESTOR BASTERRETXEA GOGOAN

www.urmuga.eus

URMUGA KULTURA ELKARTEA

MIGEL ZEBERIO, migezebe@hotmail.com ; 653747780
FELIPE URIARTE, furiartec@gmail.com; 685750763
RAQUEL LOPEZ, info@urmuga.eus
JULIA LABIANO, info@urmuga.eus
REYES PINILLOS, info@urmuga.eus
ION ANSA, ion.ansa@gmail.com

URMUGAREN URTANTA

Urmuga, mendiak eta musika batzen dituen musika jaialdia, 2020an abiatu zen. Euskal Herri osoa mendebaldetik ekialdera zeharkatzen dugu bi urtean behin, mendi tontor, herritxo eta bailaretara musika eta naturarekiko maitasuna ekarriz. Urmuga ekitaldi handia egiten ez den urteetan, aldiz, Urmugaren Urtanta antolatzen dugu, laburragoa, baina goi mailako musika dastatzeko aukera ere ematen duena. 2022ko edizioan Elkanoren mundubira omendu bagenuen, aurtengo edizioan Nestor Basterretxearen figura da goretsiko duguna.

Horretarako, lau emanaldi antolatu ditugu, uztailaren 22tik 28ra eskainiko direnak, eta Urmugaren ohiko formatuan: Et Incarnatus orkestra gidari eta euskal abeslari eta artista ezagunen parte hartzearekin. Horiei, jakina, mendi ibilaldi ederrak gehituko zaizkie. Lehen biak Hondarribian eta Arantzazuko Basilikan egingo dira, uztailaren 22an eta 23an hurrenez hurren, eta propio sortutako emanaldi ikusgarriaz gozatu ahal izango dute bertaratuko direnek. Donostiako Orfeoia, Maika Etxekopar, Et Incarnatus Orkestra, Titika Rekalt antzezlea, Iñaki Palaciosen txistua eta Xabier Lozanoren argiztapena batuko dira Jon Esnaola konpositorearen sei sorkuntza lan berrirekin eta Asisko Urmenetaren gidoiarekin landutako proposamen gogoangarrian.

Uztailaren 25ean eta 28an, aldiz, natur paraje zoragarrietan eskainiko dira bi emanaldi berezi, Bakion eta Gaintzan (Nafarroa). Bertan, Et Incarnatus Orkestrak euskal kantari ezagunen kanten egokitzapenak eskainiko ditu, Eñaut Elorrieta, Anje Duhalde, Idoia Asurmendi, Olaia Intziarte eta Xabier Leturiaren parte hartzearekin.

Urmugaren Urtantak, beraz, Nestor Basterretxearen obra eta bizitza omenduko ditu, eta bere ibilbideaz gozatzeko aukera eskainiko du horretarako sortutako lan berriak emanez. Basterretxearen bizitzan garrantzitsuak izan diren parajeetatik, Hondarribia, Arantzazu, Bermeo edo Bakio, bere lana modu hunkigarrian bizitzeko aukera eskainiko du: mendi ibilbideak eginez edo musika emanaldietara etorriz, bizipen ederra da guztientzat. Emanaldietara sartzeko ekarpenak egiteko aukera egongo da, eta horiek eskura uztailaren 1etik aurrera egongo dira, baita kontzertuen sarreretan ere.

Urmuga Kultur Elkarteak eskerrak eman nahi dizkio Urmugaren Urtanta posible egingo duten eragile guztiei. Eredu herrikoia du musika jaialdia, eta elkarte eta boluntario ugariri esker egiten da. Horiekin batera, babesleak eta erakundeak eskertu nahi izan dituzte Urtantaren arduradunek (zerrenda behean).

UZTAILAK 22

Hondarribiko Arma Plazan 22:00ean

Omenaldi helburuarekin ikuskari berri baten sorrera azken urteetan Nestor Basterretxeak bizitoki izan zuen Hondarribiko hirian.

EDUKIAK

Artistaren lan oparo eta zabaletik mitologian oinarrituta 1977an egindako marrazkietatik sorturiko Kosmogonia eskultura sortari heldu diogu .
Joxe Miel Barandiaranek belaunaldiz belaunaldi euskal ahozko transmisioan herrian hitzez jasotako ideia eta pentsaera magikoak eskulturara eta hiru dimentsiora ekarri zituen Basterretxeak, eta hauek eskaintzen duten baliabide narratibo zabala probestu nahi dugu euskal mitologia eta artistaren sorkuntza eta filosofia oinarri duen espektakulua emateko.

Basterretxearen hitzetan
"Herri jakintzan ahozko transmisioan belaunaldiz belaunaldi iraun duen ondarea, eta honek bere baitan gordetzen duen pentsamendu magikoa eskulturara ekarri zituen totem moduan."

Eskultura bilduma honek aukera eman digu hainbat gai interesgarri bere baitan hartzen dituen Asisko Urmeneta eta Titika Rekaltekin harilkatu dugun gidoia eraikitzeko, hala nola; euskaltasunaren balizko izana edo eta nortasunarekin dugun tira bira, espiritualtasuna, erlijio eta mitoekin izan dugun eta dugun lotura. Ironia eta surrealismoari uko egin gabe ikusleari gogoetarako eztena sartzeko aukera ere probestuaz, umoreari ere tartea eskainiaz. Horretan gidari izango da hitzarekin Titika Rekalt aktore zuberotarra.

Ikuskariak, osagai anitzak dituen Opera aurkezten digu, musikaren alorrean kontrastez betea dagoen hautaketa ausarta: Orfeoiaren errepertorio sinfonikoko Carmina Burana edo Baga, biga, higa bezalako partitura handiosak batetik, edo Jon Esnaola konpositore gazte eta trebeak ondutako antzinako doinu xume bezain intimoak Maika Etxekoparren ahotsean bestetik.

Asisko Urmeneta marrazkilari, zinemagile eta historialariak zuzenean eraikitako irudien bidez mitologiaren eta Basterretxearen iruditeriara eramango gaituzte. Alboan izango du osagarri Xabi Lozanoren argiztapen erakargarria eta efektuak.

Donostiako Orfeoiak aurkezpenik behar ez duen oroimen erakargarria berehalakoan sortzen digu eta azken urteetan URMUGAren baitan Et Incarnatus Orkestrarekin lortu duen lotura oraingoan ere berme eta atsegingarri izango dugu.

UZTAILAK 22

XEHETASUNAK

Et Incarnatus Orkestra
Donostiako Orfeoia
Antzezleak: Titika Rekalt, Maika Etxekopar
Kantariak: Maika Etxekopar
Txistua: Iñaki Palacios
Soinu teknikaria: Javeta Lopez
Gidoia: Asisko Urmeneta
Konpositorea: Jon Esnaola
Argiztapena: Xabier Lozano
Zuzendaria: Migel Zeberio

REPERTORIOA

6 Euskal doinutan oinarritu eta laguntzeko 6 sorkuntza berri, Jon Esnaola
Akerra Ken, Tomas Garbizu
Identity & The Ground, Ola Gjeilo
Argizari Ederra, Herrikoia.
O Fortuna + Fortune Plango vulnera, Carl Orff
Sorgin hots, Leidor Operatik, Eduardo Mokoroa.
Baga biga higa, Mikel Laboa
1982, (Eusko Lege Biltzarrak Basterretxea omentzeko), Iñaki Palacios
Itzaltzuko Bardoa, Benito Lertxundi
Gure hitzak, Mikel Laboa

UZTAILAK 23

Arantzazuko Basilikan 20:00etan

Bezperan Hondarribian eskainiko den ikuskari berriaren haritik Basterretxearen figura omenduko da nagusiki, baina honetaz gain bi gai ere jorratuko edo kontutan hartuko dira ikuskarian: JAKIN aldizkariaren sortzaileei omenaldia eta hauetatik bizirik dauden ordezkariei: Paulo Agirrebaltzategi eta Joxe Azurmendiri, baita Gandiagari, bere Hiru gizon bakarka poema liburuaren argitalpenaren 50. urteurrena dela eta.

Kontzertu aurretik hiru zutabeetan burutuko diren mendi ibilbideak antolatu ditugu toki bakoitzeko eragileekin bat eginik: kultur eta mendi elkarteak zein erakunde publiko eta pribatuekin batera.

Lehena eta sinbolismo berezia izango duena Zegamatik abiatuko da, irten aurretik Joxe Azurmendi herrikidearen omenezko ekitaldia ospatuko baita bertan.

Bigarrena Arabako lurraldetik, Araiatik helduko da eta lehenarekin Urbian bat egingo du ekitaldi ludiko baten bidez.

UZTAILAK 25

Bakioko Jata Merenderoan 18:00etan BAKIO

Bi ibilaldi egingo dira eta topagunea Jata Merenderoa izango da, bertan Eñaut Elorrieta, Idoia Asurmendi, Anje Duhalde, Olaia Intziarte eta Xabier Leturiak Et Incarnatus Orkestrarekin kontzertua eskainiko dute.

Lehen ibilaldia Mundakatik abiatuko da, Bermeoko parkean Serie Kosmogonikoaren parte handiaren inguruan ekitaldia izango dugu ondoren bideari jarraituaz, Matxitxakon Basterretxeak gudarien omenez jarria duen eskulturan bigarren ekitaldia izango dugu arratsaldeko 18:00tan Kontzertura iristeko asmoz.

Bigarren ibilbidean Maruri, Armintza eta Lemoizko lagunen gidaritzapean egingo da eta bere garaian Basterretxeak egin zuen eta toki hau zientzia ete kultur gune bilakatzeko proiektu eta maketa gogora ekartzeko asmoz.

Euskal herriko bakea, elkarbizitza, herrigintza izango dira kontzertuak aldarrikatuko dituen baloreak.

XEHETASUNAK

Eñaut elorrieta
Idoia Asurmendi
Anje Duhalde
Olaia Intziarte
Xabier Leturia
Et Incarnatus Orkestra

UZTAILAK 28

Azkugaina (Uztegi) - Aralar - Gaintza 18:00etan

2024ko Urtantantaren amaiera.

Araitz bailarako, Lekunberriko, Larraungo jendearen laguntzaz, ikusleak oinez 6 bide ezberdinetik helduko dira kontzertu tokira, eszenatokira:

XEHETASUNAK

Eñaut elorrieta
Janus Lester
Anje Duhalde
Olaia Intziarte
Xabier Leturia
Et Incarnatus Orkestra

BABESLEAK

ANTOLATZAILEAK

LANKIDETZAN

BABESLE NAGUSIAK

LABORAL kutxa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Hondarribiko Udala

olabe

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Laskorain ikastola

OÑATI
dabilen herria

euskal sagardoa
Sidra natural del País Vasco

LEMOIZ
DENONA

BAKIO
udala

LAGUNTZAILEAK

Arantzazulab
demokraziaren berrikuntza

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
Joxe Azurmendi Katedra

ARAIZKO UDALA

MUNGIA UDALA

LARRAUNGO UDALA
Bagoaz batera

AZKEN MUGA

ARRIARAN ELKARTEA
UNION DE ARRIAGA

MUNDAKAKO UDALA

arrieta

musikene

BERMEOKO UDALA

Betelu
Euskal Herriko Ura
Ur Mineral Naturala

Gatikako Udala

GAMIZ-FIKAKO UDALA

Maruri Jatabe
UDALA

ALBAOLA
ITSAS KULTUR FAKTORIA

INSALUS

URMUGAREN

URTANTA

www.urmuga.eus